



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2008-04-10**

VI. URTEA 1.404. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Atzo, Altzo Azpi-Alegia zonaldeko bidegorriaren aurkezpeneko une bat. N. URBIZU

## ALTZO AZPI-ALEGIA ZONALDEKO BIDEGORRIA ZABALIK

**TOLOSALDEA** Tolosatik Ikaztegiataraino erabil daiteke honenbestez bidegorria; Tolosaldeak 6 kilometroko bidegorria martxan du z

## Oria ibaiko eta Zelai erreka kolektorearen obrak hasiko dituzte astelehenean

**TOLOSA** Bi urte iraungo dute lanek; ibai hauetara ur zikinik ez botatzeko sistema jarriko dute eta saneamendu-sistema hobetu nahi dute s

## Kresala dantza taldearen emanaldia, bihar, Leidorren

**TOLOSA** 'Sehaska' ikuskizuna aurkeztuko dute; Amaia Zubiriak zenbait abesti kantatuko ditu 7



Erakusketan ikusgai dauden lanetako batzuk. HITZA

## Oinarrizko formetara bidaia Aranburu jauregian

**TOLOSA** Angel Arbe Zugastiren 'Biogeometriak' erakusketa dago ikusgai maiatzaren 10era arte 4

# Txalaka

**DENDA  
BERRIA**

**PROMOZIO ARTIKULUAK**

Zure enpresa promozionatzeko aukerarik onena, mota guztietako artikulua, guztiak pertsonalizatzen ditugu. Ezkontza artikuluen aukera zabala

Korreo kalea, 46 • 20400 TOLOSA • [promotxalaka@euskalnet.net](mailto:promotxalaka@euskalnet.net)  
Tel./Faxa: 943 11 71 63 • 605 725 517

# Alegiatik Tolosaraino doan bidegorriaren zatia inauguratu dute

**Alegia** » Bidegorriak 3 kilometro eta 14 metro ditu eta 774.061 euroko aurrekontua izan du; zazpi hilabetez aritu dira lanean.

## NEREA URBIZU

Atzo Altzo Azpi-Alegia bidegorriaren zatia inauguratu zuten Alegian (3.140 metro), honela, bidegorria Tolosatik Ikaztegiataraino iristen delarik. Hala, Tolosaldeak 6 kilometroko bidegorria dauka dagoeneko. Markel Olano Ahaldu Nagusia, Karlos Ormazabal Garapen Iraunkorreko diputatua, Aitor Sarasola Iñaki Murua eta Jokin Bildarratz Alegiko, Altzoko eta Tolosako alkateak izan ziren, hurrenez hurren, inaugurazioan.

Atzo inauguratu zuten zatia (Tolosa-Alegia) 3 kilometro eta 140 metrokoa da, eta 7 hilabete burutu dute lana. Ormazabalek esan bezala, «Gipuzkoako bidegorriaren sareko bigarren faseari dagoiko zati hau». 774.061 euroko aurrekontua izan du. Jakina, oinezkoentzat eta txirrindularientzat izango da, baina oinezkoek izango dute lehentasuna.

Bideak lau metroko zabalera du hasierako zatian, eta pixkanaka estutuz doa, Alegiko bi metro eta erdiko zabalera zatiarekin bat egin arte. Trenbidearen azpitik igarotzen da herriaren sarreran, eta horretarako zubitxo bat egin behar izan dute.

### «Errespetatu beharrekoa»

Aitor Sarasola Alegiko alkateak gogoratu zuenez, «bidea errespetatuko dela» espero du eta bidegorria «txukun izaten» ahalegindu behar dela, «Tolosa eta Alegia elkartzeko bide hau erabili ahal izateko». «Errespetua ere behar da bai oinezkoekiko eta baita bizikletan dabilzanekiko ere», honela arriskuak ekidinez.

Olanok «mugikortasun iraunkorraren aldeko apustua» azpimarratu zuen, «garrario publikoa eta ez pribatua bultzatuz». Goierri aldean bidegorria egiten ari direla gehitu zuen. Beraz, Tolosatik Or-



Atzean, trenbidearen azpian egin behar izan duten tunela: irudian Murua, Olano eta Bildarratz bizikletaz. N. URBIZU

diziaraino egin ahal izango da bidea gutxi barru. Guztira, 15 kilometro inguru izango dira.

Bukatzeko, Olano, Bildarratz, eta Murua bizikletaz ibili ziren zubitxoaren inguruan.

### Hobetu beharrekoak

Zeinbait irakurlek Zurea da Hitza atalaren bidez ([http://www.tolosaldetikohitza.info/zureadahi-tza/299/Bidegorriaren\\_zati\\_bat\\_a\\_rriksutsua.htm](http://www.tolosaldetikohitza.info/zureadahi-tza/299/Bidegorriaren_zati_bat_a_rriksutsua.htm)), «Alegiara sartzeko garaian dagoen arriskua» azpimarratu dute. Alegiara sartu aurretik, zubiaren aurretik, autoak herriratsatu behar dira eta bidegorria gurutzatu behar dute. N-1 errepidetik datozenak dira eta «abiadura handian datoz» bidegorriak ez du kolore gorririk eta ez da ondo ikusten.

### Ikaztegiatiko zatia

Alegiatik Ikaztegiataraino bidegorria egin dago eta jendeak erabiltzen du. Ikaztegiatetik Legorretarako bidea egiten ari dira orain, baina arazo batzuk ere badira: dagoeneko istripu txiki batzuk izan dira bertan. Bidegorriak ez du Ikaztegieta zeharkatzen, Eneritz Maiz alkateak argitu bezala, «errepideak ez zuelako zabalera nahikorik. Horregatik, herria espaloia- ren bidez zeharkatu behar da».

Herriaren bukaeran, industri- gunea dago eta orduan, baseliza- ren parean bidegorria beste aldera igarotzen da, Goierri zozela eskuinean, hain zuzen ere. Bidegorri- an zehar plastikozko zutabeak edota egurrezkoak aurki daitezke, eta «errepidean autoz doana bidegorri- an ez sartzeko» dira, Jose Antonio Navarro obra zuzendaritza- ko kideak adierazi bezala. Egu-

rrerezkoak bihurtu handietan daude, babes handiagoa ematen duelakoan.

Navararren arabera, «Ikaztegiatetik Legorretarainoko bidegorria hilabete batean» bukatuko dute. «Eguraldi ona edo lehorra egiten duenean kolore gorria emango zaio bidegorriari. Orain emangobagenio, eguraldi honekin ez litzateke ondo geratuko».



Ikaztegiatetik Legorreta alderako bidegorria hilabete barru bukatuko dute. N. U.

## Z Zurea da hitza info

# Herritarrek osatutako artisau azoka antolatu nahian

## ALEGIKO KULTUR BATZORDEA

Alegiako kultur batzordea artisautza azoka bat prestatzen ari da ekaineko lehenengo iganderako, hau da, ekainaren 1erako. Bertan, egurra, zumea, saskiak, koadro eta margolanak, eskulanak, larrua... lantzen duten Alegiko bizilagun guztiak gonbidatzen ditugu azoka honetan parte hartzera.

Horretarako, Iñaxio Begiristain

kultur eta kirol etxetik pasa edo deitu izena emateko apirilak 14 eta 25 bitartean. Epea ez da oraindik ireki, baina jendea pentsatzen joan dadila.

Aurtengo azoka Alegiako bizilagunentzat mugatua izango da.

Dena dela, informazio gehiagorako Kultur Etxetik pasa edo bestela deitu 943 65 46 98 telefono zenbakira.

## Laburrak

### Ibarra eta Eizmendirekin elebitasunaz, gaur

**ALEGIA** » No sabemos euskera... Como podemos ayudar a nuestras hijas e hijos? hitzaldia antolatu dute Alegian, San Juan eskolako guraso elkarteak eta eskolak. Laguntzaila, berriaz, Alegiko Udala izan da. Gaur gaztelaz izango da eta euskara ongi menperatzen ez dutenen kasua izango dute hizpide eskolan, 19:00etan. Hizlariak Julio Ibarra eta Iñaki Eizmendi dira; Euskal Herrian euskara eta gaztelera erabiltzen ditugu gehienbat, eta gurasoek gero eta galdera gehiago daukate, kasu askotan ez baituzte bi hizkuntzak guztiz menperatzen.

### Festetan dantza konpartsa antolatzeke deialdia

**ALEGIA** » Alegiako jaiak heltzeko, herriko helduen dantza taldeko ikasleek proposamen berritzaile bat lutzatu nahi diete herritarrei. Izan ere, jaiak parte-hartzaileagoak izateko xedearekin dantza konpartsa herrikoia eta zabala antolatu nahi dute. Egitasmoa gauzatu dadin deialdi ireki bat egin dute gaurko 19:30ean, Kultur Etxean. Bertan, sortu nahi den dantza konpartsa- ren inguruko xehetasuneei buruz hitz egingo dute, hala nola, dantza egiteko entsegunen datoren zehaztapenak, prestatu daitekeen egitarauak: kalejira, poteoa, afari edo bazkaria...

### Oialde elkarteko itxaron zerrenda osatzeko epea

**LEITZA** » Oialde elkarteko itxaron zerrenda osatzeko epea zabaldu berri dute Leitza. Oialde elkarteak azken eguna hilaren 15a jarri du, hau da, datorren asteartea. Oialdeko postontzian utzi beharreko datuak hauek dira: izen-abizenak, helbidea eta telefonoa. Horrek ez du esan nahi izena ematen duena bazkide izatea pasako denik, itxaron-zerrendan egonena dela baizik.

## BERRIAK kazetari bat behar du Andoaingo egoitzarako (erref. 08403)

### Eskaintzen da:

- Urtebeteko kontratua (Iuza daiteke)
- Etorbizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera

### Eskatzen da:

- Kazetaritza ikasketak izatea

### Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Autoa izatea
- Hizkuntzak jakitea

Bidali zure curriculumak [gb@berria.info](mailto:gb@berria.info) helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuz.



Eskuz egindako aukliak. N. URBIZU

**S Soka motzean**

**«Osasuntsu egoteko eta ondo pasatzeko egiten da kirola»**

**ONINTZA ARREGI**

Abraham Olano kiroldegiaren arduraduna

**I. GARCIA**

Onintza Arregi (Tolosa, 1983) Anoetako kiroldegiko arduraduna da.

**Kirol asko egiten dugu?**

Orain gehiago, baina garaieran arabera.

**Eta zer kirol egiten dira?**

Modak asko agintzen du. Modan dauden pilates eta spinning-etaz aparte, korrikari eta bizikletan jende dexente aritzen da.

**Zu zeuk ere kirola egingo duzu, ezta? Zein?**

Gehienbat bizikleta.

**Zein duzu gustukoak?**

Igeriketa eta triatloia.

**Zein da kirol gogorra?**

Denak dira bere mailan, gogoaren eta helburuaren arabera. Agian bakarrik taldeak baino gogorragoak.

**Gustuko kirolariren bat?**

Igeriketan, Popov.

**Zein txapelketa gustatuko litzazuke irabaztea?**

Memento honetan lehiaketa ahaztuta daukat, baina edozein triatloi.

**Parte hartu duzun lehiaketa bereziren bat?**

Igeriketan eta korrikari aritu naiz. Adibidez, Behobia-Donostia Lasterketan oso giro ona izaten da. Triatloi bat probatu nahi dut. Giroa asko gustatzen zait.

**Zertarako egin behar da kirola?**

Osasuntsu egoteko eta ondo pasatzeko era bat delako.



I. GARCIA

**Bigarren kanporaketa dute bihar Poltsikoko Antzerki Lehiaketan**

**Aduna** » Eskualdeko Suyanema taldea eta Javier Esteban tolosarra, Gasteizko Lestat taldean, ariko dira besteak beste.

**I. GARCIA**

Asvineneak antolatutako Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren bigarren kanporaketa egingo dute bihar, 22:30ean. Bertan parte hartuko dute Amaia Pagola eta Josune Intxausti gazteluarrek osatutako Suyanema taldeak, *Orden cotidiano* obrarekin. Javier Esteban tolosarrak Lestat talde gasteiztarrekin parte hartuko du eta *Medía noche en la mansion* lana aurkeztuko dute.

Eskualdekobiordezkarietz gain, beste hiru talde ariko dira: Bazen behin clown, *Esta sí que sí* lanarekin; Dedalo, *Transaccion* obrarekin, eta Bat eta Bi taldea, *Un encuentro especial* lanarekin. Aurreko kanporaketan bezala, bi talde pasako dira finalerdietara. Epaimahaiak aukeratuko du talde bat eta beste ikus-entzuleagoren aukeraketa izango da. Oraingo honegan Txan Magoa izango da artista gonbidatua.

Amaia Pagola eta Josune Intxausti lehenengo aldiz aurkeztu-

ko dira Poltsikoko Antzerki Lehiaketara. Tolosako antzerki tailerrean aritu ziren eta beti gustatu izan zaie antzerkiaren mundua. «Jaz Asvinenean izan ginen, Poltsikoko Antzerki Lehiaketa ikusten», azaldu du Pagolak. «Aurten animatu egin gara parte harztera. Afari batean horri buruz hitz egiten ari girela, pausoa ematea pentsatu genuen».

Suyanema taldea lehiaketa horretako sortu dute, beraien izenaren letrak elkarren artean nahastuz. *Orden cotidiano* antzezlanaren lehiaketarako prestatu dute. «Gaztekeraz egin dugu, beste hizkuntza batean errazago egiten zai-gulako paperean sartzea», azaldu du Pagolak. «Askok gozatu dugu entseguetan. Lagun bat izan dugu bultzada ematen». Komedia kutsuko lana da eta egunero gertatzen den zerbait islatu nahi izan dute bertan. «Ama batek, egun guztian kanpoan lanean aritu ondoren, etxera bueltatzerakoan dena hankaz gora ikusten du. Horki abiatzen da». Lehiaketan parte hartzeko «ilusio» daudela gaineratzen du gazteluarrek.

Javier Esteban egun Gasteizen ari da ikasketak burutzen. Hiri horretan dagoen antzerki tailerrean eman du izena eta taldekideei eman zien lehiaketaren berri.

Hain justu, iaz ere parte hartu zuten Estebanek, Tolosako antzerki tailerreko beste kide batzuekin. «Batez ere drama kutsuko da, baina komedia puntu bat ere badu», dio Estebanek aurkeztuko duten lanaz. «Ondoan dituen gauza onak aprobetxatzen ez dakien jendeari buruz da obra», azaltzen du tolosar antzezleak.

**Hernanikoa eta Magik Teatro, finalerdietara**

Lehenengo kanporaketa «arrakastatsua» izan zela azaldu dute Asvineneatik. Aretoa ia beteta izan zen eta parte hartu zuten lau taldeek «ikus-entzulegoaren arreta mantendu zuten eta, antolakuntzakoak bezala, irribarre batekin gustura ateratu ziren aretotik». Kanporaketa horretan epaimahaiak aukeratutako taldea Hernanikoa izan zen eta ikus-entzulegoak aukeratutakoa, berriz, Magik Teatro. Beraz, bi talde hauek aurrera egin dute eta finalerdietan izango dira.

Gonbidatutako artista bezala egun Bartzelonan bizi den Asvin asteasuarra izan zen. Miren eta Daviden laguntzarekin, «ikuskitzuna» aparta eman zuten, dantza, airezko zirkoa eta klake dantza pilotekin uzartu zituen. «Aho irekitu utzi gintuen», azaldu dute Asvineneatik. «Magia hutsa izan zen».

**Onddolar: «Jendeak hondakinen gaiari buruz jakinmina du»**

**Villabona** » Zaborrari buruzko hitzaldia antolatatu du erraustegiaren aurkako plataformak; hiru aditu izango dira bertan.

**I. GARCIA**

Erraustegiaren aurkako Onddolar taldeak zaborrari buruzko hitzaldia antolatatu du gaurko, Udalaren babesarekin. Gurea aretoan izango da solasaldia, 19:30ean. Onddolarretik azaldu dutenez, «hondakinei buruz jakinmina du jendeak. Lau urte daramatzagu sortu ginetik eta jendea inguratzen zaigu galdetzeraz».

Ikusita gizartea «gero eta gehiago mentalizatzen ari dela kutsadurak osasunean duen eraginaz», hitzaldia antolatzea erabaki zuten eta horretarako hiru aditu gobidatu dituzte. Jordi Colomer ingurumen teknikaria, Imanol Azpiroz konpostaiaren aditua eta Julia San Jose medikua ariko dira. Hauek egingo duten azalpenen ondoren, tarbatutako da entzulegoak galderek egiteko.

Julia San Josek errauste plantak dituen arriskueta eta zer kutsadura mota eragiten dituen azalduko du. Dioxinei eta furanoei buruzko azalpenak ere emango ditu. Zaborra erre ondoren sortzen diren hondakineta ere hitz egingo du, tartean hauek sortzen duten kutsaduraz.

Kutsadura guzti hori elikaduraren bitartez ere nola hartu daitekeen ere azalduko du San Josek, bezalaxe kutsatu daitezkeela eta horrek gero elikagaiak kutsatzea ekartzen duela azalduz. San Jose Txingudiko erraustegiaren aurkako taldearen kidea da.

**Atez-ateko bilketa**

Jordi Colomer atez-ateko gaikako zabor bilketaren bultzatzailea da Katalunian. Berezik Villassar de Mar udalerrian aritu da esperientziak aurrera eramaten, baina guztira 60 bat herri badira Katalunian zaborraren bilketa mota hori erabiltzen dutenak. Orain gutxi, Gipuzkoako hainbat Udaletako ordezkariak Katalunian izan dira esperientzia horren berri jasotzeko.

Atez-ateko bilketa horri buruz hitz egingo du Colomerrek. Bide planteatzen dira aukera egiteko: atez-ateko bilketa edo erraustegia. Katalunian laupabost erraustegietatik bakarra erabiltzera jaitzi dira azken urteotan.

Imanol Azpiroz, konpostaiaren aditua da eta Usurbilgo atez-ateko gaikako zabor bilketa proiektuaren bultzatzailea da. Proiektu horren berri emango du. Herrian egiten ari diren egitasmoa Villabona-erantzat eredu izan daitezkeela esan dute Onddolarretik, bi herrietako biztanle kopurua antzekoa baita. Bestalde, Azpirozek konpostaiaren gaia ere izango du hizpide.

**Emakumeen egoerari buruzko bilera, gaur**

**ERREDAKZIOA**

Hilaren 12an eta 13an Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak antolatuko dituzte Portugaleten (Bizkaian). Hain zuzen, jardunaldi horien aurkezpenean egingo dute gaur Anoetan. Bilera udaletxean

egingo dute eta 19:30ean hasiko dira.

Jardunaldi feministen aurkezpenean egiteaz gain, emakumeek gaur egun bizi duten egoeraren inguruan hitz egin eta eztabaidatu nahi dute batzar horretan ere.

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## Oinarrizko formetara barne bidaiia

**Erakusketa** » 'Biogeometriak' Angel Arbe Zugastiren collage erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian, maiatzaren 10era arte.

**INIGO TERRADILLOS**

Erakusketa berria inauguratu zuten Aranburu jauregian pasa den ostiralean, eta maiatzaren 10era arte izango da ikusgai, Angel Arbe Zugastiren (Iruñea, 1953) *Biogeometriak*.

Collage teknika erabiliz, forma

dinamikoak nabarmentzen dira bertan. «Arte grafiko da, collage teknikarekin; nire pintzela gorai-zeak dira eta nire kolore eta formak aldizkarietatik hartzen ditut. Edozein aldizkarietatik mozten ditut irudiak gero nire lana sortzeko. Dena birziklatzen dut». Bizitzako

forma oinarrizkoenak landu ditu artistak lan honetan. «Forma hauek aztertuz, segituan konturatu gara oso angeluarrak garena; mugimendua duten irudien, formen oinarria angelua da, bilerroak batzean sortzen dena. Angeluetatik dator beste guztia, triangelua, laukia eta abar», azaltzen du. Hortik dator erakusketaren izena, *Biogeometriak*, «oinarrizko formetara barne bidaiia delako».

«Ia bizi osoa darama arteari eskainia. Hasieran autodidakta be-

zala, gero arte ederrak ikasi zituen, eta pinturan berezitu zen. «Pintura bidimensional da, eta ez da erabat egiazkoa errealitate gerturatu arren; egiazkoagoa da collage-a, elementu errealez osatua baitago», azaltzen du. Azken aldian collagearekin lanean ari den arren, aurrera begira pintura lantzea ez duela bazterten dio. 19 urte zituela jarri zuen lehen erakusketa, eta ordurako pinturarekin batera collage ere landu zuen.

«Zerikusi zuzena du collage-ak

hain zatituta dagoen gaur egungo munduarekin, irudiekiko dagoen nagusitasunarekin. Intuzioa sartzen da, formak eta koloreak familian banatzen ditut. Familiak angeluak dira triangeluak, ronboak eta hortik aurrera forma abstraktuak sortzen ditut», dio.

Tolosan bertan hasi zuen erakusketa honen lehen zatia 2002an, eta orain bertara, Tolosara, bueltatu da lana bukatzera, izan ere, «beti izan dut erlazioa Tolosarekin, berruan daramat».

**Z** **Zurea da hitza** info

## Zorionak Aizkardi mendi elkartekoei egindako lanagatik

**Kirolak** » Villabonako elkarteak bere 40. ibilaldian ingurua txukun mantentzeko egindako lana goraiatu dute.



Mugaga inguruaren irudia, ehiza garaian. HITZA

**JON ETA IÑAKI**

Mugagatik, Aizkardiko Ibilaldiko lehen kontroletik, milatik gora ibiltari pasa ziren. Bertan hartu zuten eguneko lehen mokadua. Azken

mendizalea iritsi aurretik euria hasi zuen eta arduradunek egoera txarrean jaso behar izan zituzten bertan erabilitako tresnak, mahaiak, ontziak eta sortutako zaborrak.

Egun batzuk beranduago pasaginen Mugagatik eta ibilbide motzaren zati handi batetik. Ez genuen inongo arrastorik sumatu; ez Mugagan, ez ondorengo bidean, ez inongo paperik ez laranja azalik, ez bidea markatzeko erabilitako plastikorik ere. Benetan zorionak Aizkardikoei eta mendizale guztiei!

Baina, beti bainaren bat badago. Mugagan badago ehiza garaian erabiltzen den eraikin itsusibat, in-

guru urte osoan itsusitzen duena. «Parada» hori nahikoa ez balitz, bertan ikusi daitezke oraindik ehizariek utzitako kartutxoak eta bestelako zikinkeria. Mendate eta bidegurutze garrantzitsua izanagatik badirudi ehiza kontutan arduraduen inor bertatik ez dela pasa... edo ez diela axolarik bere araudien aurka doan ohitura (alegia, kartutxoak mendian uztea).

Ezin dugu ukatu azken urteetan hoberako joera nabaria izan dugula zenbait ehiza lekutan, «parada» inguruetan. Gutxienez, «pase» garaia bukatuta (ez egunero, behar bezala), garbituak izaten dira inguru hauek. Ea Mugagako «paradari garbitzeko ordua iristen zaion».

## Astelehenean ekingo diete Oria eta Zelaiko kolektorearen lanei

**Tolosa** » Aurreikusten da bi urte iraungo dutela lanei; baina garbi du Udalak, «onura handiak» ekarriko dituela.

**ESTI EZEIZA**

Ura uraren agentziak eta Tolosako Udalak Oria ibaiko eta Zelai erre-kako uraren kalitatea hobetu nahi dute. Honetarako, ibai hauetara ur zikinik ez botatzeko sistema jarriko dute martxan, baita saneamentu-sistema hobetu ere. Hau guztia Oriara eta Zelaira isurtzen diren ur zikinak ez botatzeko helburuz egingo dute.

Oria erdiadeko eta Tolosako adar osagarrien hodi biltzailea egiteko lanei datorren astelehenean ekingo diete, eta bi urtez luzatuko dira. Hala ere, Jokin Bildarratz alkateak nabarmendu zuen, «epe honetan eragozpen handiak sortuko diren arren, etorkizunean onura handiak ekarriko dituela».

Bi urtetan, txandaka ekingo dituzte lanak, «herriarrei ahalik eta eragozpen gutxien sortzen eta unean-unean obraren berri ematen bizilagunei» saiaturiko direlarik. Lanak 16 zonaldeetan ekingo dituzte, eta ondorengo kale eta auzoak hartuko dituzte: Araba etorbidea, San Frantzisko pasealekua, Zumalakarregi pasealekua, Rondilla kalea, Kale Barrera, Santa Klara kalea, Kondeaneko aldapa, Ibarako kalea, M. J. Iraola kalea, Rekalde Almirantearen kalea, Elkano kalea, Paper kalea, Nafarroa etorbi-


dea, Foruen etorbidea, Iurramen-di pasealekua eta Amarotz auzoa.

Eusko Jaurlaritzak, Ura agentziaren bitartez eta Tolosako Udalak hartu beharreko neurriak hartuko dituzte Tolosa eta Tolosaldeko bizilagunei, nahiz etorriko diren bisitariei ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko: trafiko desbideraketei dagokionean, oinezkoentzako bide aldaketak egiteko garaian... Honenbestez, sortzen diren eragozpenengatik barkamena eta lankidetzara eskatu die alkateak herritarrei. Izan ere, bere esanetan, «lan hauen helburu bakarra da Tolosako eta bertako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzea». Bestalde, etorkizunera begira, araztegi bat jartzea aurreikusten dute, hondakin-urak tratatuak izan daitezken.

**Unean uneko informazioa**

Tamaina eta eragin handiko obra denez, Tolosako Udalak «ongi informatuta» eduki nahi ditu herritarrak. Honetarako, atzo azalpen orokorrak emateko bilera bat egin zuen Kultur Etxean. Bestalde, 10.000 triptiko argitaratu ditu tolosaren artean banatzeko. Honez gain, eragin zuzena izango duen zonaldeetako bizilagunekin bile- rak egingo dituzte, afekzioen azalpen zehatzak emateko. Azkenik batzorde informatibo bat osatuko dute Udala eta sektoreetako elkar- teekin batera.

Lanen eskuduntza Eusko Jaurlaritzarena bada ere, Tolosako Udalak bitartekaritza lana egingo duela azaldu du, ahalik eta arazo gutxien izateko.




**Kolektorearen ezaugarriak**

Hodi biltzaile hau saneamendu orokorreko kolektore berria da eta Tolosako ur beltzak jasoko ditu. Honek, Oria ibaira eta Zelai erre-kara ur zikinik ez isurtzeko balioko du. Izan ere, ur zikinak ibaia baino beherago ekingo den araztegiara eramateko balioko du. Eusko Jaurlaritzak sustatutako proiektu honen aurrekontua 16 milioi euro-takoa da.

Bestalde, zenbait zonaldeetan, duela gutxi egin dira urbanizazio lanak, eta hauek aprobetxatuz, zenbait hodi bide sartuta daude. Horren adibide dira Usabal kirol-degiaren inguruko eta Belate auzokoa. Orain, hauetako batzuk eraikiko den sare nagusira lotuko dituzte.

Udalaren esanetan, lau arlotan izango du eragina obra honek. Alde batetik, saneamenduaren hobekuntza ekarriko du. Bigarrenik, ingurumenean ere onurak izango dira. Bestetik, zenbait deserosotasun ere pairatu beharko dituzte. Eta azkenik, Udate zerbitzuak eskaintzen duen herritarren erkapetan izango du eragina.



Proiektuaren arduradunak, aurkezpenean, eta ekingo diren lanen planoa. EE

**hitza** info

elastiko berriak salgai  
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin  
**poltsa opari!**

**Tolosako HITZaren bulegoan eskuragarri.**

**Harpidedunentzat %25 merkeago**



Erromatarren aztarnak ikusteko aukera edukiko dute ibilbidean. HITZA

## Seigarren mendi irteera hilaren 20rako antolatu dute

**Ibarra** » Herriko plazatik 08:00etan irtengo dira Orbaizetara 3 edo 4 ordu mendian ibili ostean herrira itzultzeko.

### A. IMAZ

Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeak mendi irteera antolatu dute Donibane Garazira (Behe Nafarroa) hilaren 20an.

Irteera 08:00etan izango da Ibarrrako San Bartolome plazatik. Auroak hartu eta Orbaizetara (Behe Nafarroa) joango dira 3 edo 4 orduko ibilbidea egitera. Urkulu eta inguruko mendietan ibili ondoren Orbaizetara itzuliko dira. Antola-

tzaleek bazkaria ematea gomen datu dute.

### Euskal Herria ezagutzuz...

Bi taldeek elkarlanean antolatzen dute seigarren ekitaldia da apirilaren 20ean egingo duten mendi irteera eta *Euskal Herria ezagutzuz, lurraldetasuna sustatuz* ekimenaren barnean kokatzen da.

Lapurdi, Zuberoa, Nafarroa, Bizkaia eta Araba ezagutu ondoren, orain Behe Nafarroara joango dira. Ekimenari amaiera emateko Gipuzkoan antolatu dute mendi irteera maiatzaren 25ean. Lizarrusti parketik irtengo dira orduan, Larraitzekin amaitzeko. Bertan bazkariarekin ospatuko dute azken irteera.

## Laburrak

### Errioxara irteera hilaren 24ean Jubilatuta Elkartetik

**BERASTEGI** » Jubilatuta Elkarteak Aldeanueva de Ebroa (Errioxa) bi daia antolatu du hilaren 24ean. Bertan upategi bat ikusteaz gain, ardoa doan dastatuko dute hamaketakoa egiten ari diren bitartean. Ondoren herriko eliza eta inguruak ezagutuko dituzte, Venezia jaitegian bazkaltzeko. Izena Gaztaironon eman beharko du joan nahi duenak.

### Iragarki laburrak

#### SALGAI

■ **Etxea.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean. Oso merkea. 665 70 86 35.

#### BESTELAKOAK

■ **Txakurkumea.** Bolder Collie arrazako txakurkume emea oparitzen dut. 658 70 59 12 (Xabo).

### Hilaren 14ean Festa Batzordearen bilkura

**IBARRA** » Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak San Bartolome jaien antolaketari ekin asmoz, hilaren 14ean, astelehenean, Udal Bilkura Aretoan egingo den Festa Batzordearen bilkuran parte hartzeko deialdia luzatu die herritarrei. Jaien antolaketarako batzarra 19:30ean hasiko da eta Udalak herritar guztiak «animatu eta gonbidatu» nahi izan ditu.

**@ Irudietan.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK Aste Santuko argazki lehiaketa antolatu du, eta argazki batzuk jaso ditu dagoeneko. Irudietan atalean sar zaitzeko eta ikusi ere bai. Anima zaitzez, eta joan pentsatzen nori eman merezitako bozka, finalera pasatzeko aukera emanaz. Eta zergatik ez, zu zeu ere anima zaitzeko zeure Aste Santuko argazkia bidaltzeko. Sartu gure webgunean eta partehartu lehiaketan:

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)



Alurr dantza taldearen emanaldia Irisarrin iragan asteburuan. HITZA

## Alurr dantza taldeak denboraldia abiarazi du eta bihar Zaldibian ariko da

**Ibarra** » Sarean zintzilikatu dituzten web orria eta aurkezpen bideoaz ere hitz egin dute taldeko arduradunek.

### ASIER IMAZ

Alurr dantza taldearen emanaldien ikasturte berria abian da. Iragan asteburuan Euskal Herriaren Iparraldean hainbat emanaldi eskaini ondoren, Irisarrin (Behe Nafarroa) besteak beste, bihar Gipuz-

koara itzuliko dira Zaldibian dantza sorta eskaintzeko. 22:00etan hasiko dira lanean Ibarrrako dantzariak, Zaldibiko pilotalekura gerturatzeko diren gozameneko.

### 'www.alurr.com'

Alururen emanaldiez gain, taldeko arduradunek web orriaren inguruko berri ere eman nahi izan dute: [www.alurr.com](http://www.alurr.com). Bertan atal desberdinak aurkitzen dira, besteak beste, dantza taldearen eta Alurr dantza eskolaren inguruko

berriak. Horretaz gain Alururen historia aurkitzen da, urte hauetan zehar egindako emanaldietan aterako argazkiekin batera.

Web orriaren foroa edo eztabaidagunean, dantzari buruzko hausnarketak aurki daitezke.

### Alururen aurkezpen bideoa

Sarean jarraituz, Ibarrrako dantza taldearen aurkezpen bideoa YouTube-n zintzilikatu dute, ondorengo helbidean sartu behar da bera ikusteko: <http://www.youtube.com/watch?v=4HqnyRHApo>.



## Ahaldun Nagusiaren bisita Berrobin

**POLITIKA** » Gipuzkoako Ahaldun Nagusia, Markel Olano, herriko alkatearekin, Jon Jauregirekin, eta udal taldearekin bildu zen atzo udaletxean. Bertan, Berrobiko proiektuen inguruan hitz egin zuten, «martxan dau-

denetaz eta jarri nahi direnetaz». Ondoren, «bilera hitz egina ikusteko asmoz», Ahaldun Nagusiak eta udal taldeko kideak herrian zehar itzuli bat eman zuten. ASIER IMAZ



Lan honetan bakarkako zatiak taldekako dantzeekin uztartzen dituzte, sentimendu desberdinak islatzeko. HITZA

## Kresala Dantza Taldearen 'Sehaska' ballet ikuskizuna bihar Leidor aretoan

**Tolosa** » Amaia Zubiriak zenbait abesti abestuko ditu Mirian Perez dantzariak bakarka dantzatzeko duenean.

### ERREDAKZIOA

Kresala dantza taldeak *Sehaska* izeneko dantza emanaldia eskainiko du larunbatean 20:30ean. Sarrerak Servikutxan, Telekutxan edo [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) webgunean lor daitezke.

### Kresala taldearen azken muntaia

*Sehaska* da Kresala dantza taldearen azken muntaia eta 2006. urteko abenduaren 28an estreinatu zuten Donostian. Edukitzea eta ez izatea bezalako kontzeptuetatik sortutako dantza da hau, eta 2 kontzeptu horiek dakarten itolarria ere dago bere sorreran.

Dantza historikoaren jaiotzetik abiatu, eta berpizkunde eta barroko garaia ere uztartzen ditu, aro modernoraino iritsi arte.

Muntaia honen barruan gara-



Kresala Dantza Taldea. HITZA

tzen diren koreografiak 2 ildo nagusietan oinarritzen dira: batetik, talde mugimenduetan, izaerazko dantza erromantikoei estuki lotuak daudenak, talde bateko kide izatearen emozioaren ondorioz sortuak, eta bestetik zerbait galtzearen sentipenean. Azken hau ba-

karririk dantzatzeko duen emakume batek islatzen du.

Orotara bost dira bakarkako dantzak eta hauek Amaia Zubiriak *a capella* kantatutako kantak izango dituzte lagun. Muntai honetan estilo proposamen ezberdinak uztartzen dituzte, eta koreografiaren tonuak seriotasuna eta fribolitatea nahasten ditu. Musika *collage* batean isurtzen da dantza, poema eder batzuek kulunkatuz Bitoriano Gandiagaren hitz hauek bezalaxe: «hau ez da irudipen bat / hau ez da oroitzapen bat / baizik sentimendu bizi bat».

### Fitxa artistikoa

Kresala dantza taldearen azken lanaren zuzendari artistikoa eta koreografoa Faustino Aranzabal da, musika zuzendaria Ibon Otaegi, aholkulari artistikoa Gene Yurre, dantza irakasleak Aitzol Iriondo eta Idioia Arana eta dantzari nagusiak Julen Sota, Eli Rezabal, Harkaitz Ardanaz, Mirian Perez eta Haritz Perez. Jantziak Idoia Ibarzabalek egin ditu.

Kresala Dantza Taldea 1968. urtean sortu zuen Gene Yurrek.

## TTT Iparkal bikain Azkoitiako Duatloian

**Kirola** » Tolosako Triatloi Taldea bederatzigarren postuan gelditu zen sailkapen orokorrean.

### ERREDAKZIOA

Bederatzigarren postuan sailkatu ziren Tolosaldeko triatloi taldeko mutilak Azkoitiko Duatloian. Euren helburua, beraz, bete zuten, lehenengo 10 postuetan gelditzea baitzen.

22 talde izan ziren guztira irteera puntuan eta TTT Iparkal taldekoak taldekako sailkapenean top 10eko zerrendan sartzea lortu zuten. Azkoitiko duatloian lehenengo 5 irabazleentzat banatu zituztensariak, bai gizezkoentzat, bai emakumezkoentzat, eta Tolosaldeko triatloi taldeko mutilak sariarik lortu ez zuten arren, taldetik azaldu dutenez, «oso ongi aritu ziren ezen Euskadi mailan oso indartsuak diren taldeen aurretik sartzea lortu baitzuten».

### Azkoitiko duatloia

Azkoitiko duatloian parte hartu zutenek 3 proba gainditu behar izan zituzten ingandean. Lehenengo 8 kilometro korrika egin zituzten, herrian barrena. Ondoren, bizikleta hartu eta 36 kilometro egin zituzten, hau da, Azkoitik Urretxura joan-etorria. Bigarren proba

hau amaitu ondoren, berriro korrika egin behar izan zuten, baina azkeneko zati hau motzagoa izan zen, 4 kilometro besterik ez baitziztuzten egin.

### Sailkapena

Gizezkoentzen, lehenengo bostak hauek izan ziren: Sergio Gomez del Rio, Patxi Urizar Otamendi, Endika Gartzia Eizagirre, Fernando Irigorri Artola eta Ekaitz Osa Zabaleta.

Emakumezkoek dagokienez, lehenengo bostak hauek izan ziren: Inmaculada Ruiz Teran, Maria Oiartzabal Etxeberria, Gurutze Frades Larralde, Veronica Dominguez Villazala eta Maider Vallina Larreategi.

Taldekako sailkapenean, Krafft Atletico San Sebastian izan zen lehena, Trigo Triatloi Taldea bigarrena, Azkoitiko Triatloi Taldea hirugarrena, Antxintxika-Algon Triatloi Taldea laugarrena eta Eibar Triatloi Taldea, bosgarrena.

### Aurrera begira, baikor

Azkoitiko Duatloian lortutako emaitza ikusi ondoren, taldea baikor dago aurrera begira. «Emaitza honek argi erakusten du oso talde erregularra eta homogeneoa dela eta aurreko emaitza politik lortzeko gai izango direla talde bezala». Datorren asteburuan Arrigorriagara joango dira Euskadiko Txapelketan lehiazera.



Tolosako triatloi taldeko 2 kirolari helmugara iristen. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Irteerak

■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak Urdazubi-Arraioz mendirteera antolatuta du hilaren 20rako, Baztan bailaran, Alkurruntz (934 m) eta Legate (870 m) mendiak igoz. Sei ordu inguruko irteera. Izen-ematea, elkartean (943 652789).

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatuta eta pentsonista elkarrekin Saloura irteera antolatuta du ekainaren 1etik 15era pentso osoan. Izen-ematea, elkartean 395 eurotan (bazkide ez direnek 401 euro).

### Hitzaldiak

■ **Villabona.** Hondakinei buruzko hitzaldia Gurea aretoan 19:30ean: Jordi Colomer teknikari kataluniarra, Imanol Azpiroz konpostajearen aditua eta Julia San Jose sendagilea.

### Deialdiak

■ **Ibarra.** VII. Misio Astearren barruan, afari solidarioa San Bartolome parrokiako lokaletan ostiralean. 12. Xartelak, bertan 10 eurotan.  
■ **Tolosa.** Tolosa Kup 08 txapelketan izena emateko aukera dago www.tolosaokudala.net-en edota Gazte Informazio Bulegoan. 75 euro ordaindu beharko dira.

### Zinema

■ **Tolosa.** Andrew Dominiken *El asesinato de Jesse James por el cobarde Robert Ford* filma (JBA) emango dute zine forumean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.  
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# Hainbat kolore eta aukera


**HITZA, elastikoak** » Inoiz baino aukera zabalagoa aurki daiteke HITZAren elastiko berrietan, koloreari eta diseinuari dagokionez.

### ERREDAKZIOA

Udaberriarekin batera, HITZAren elastiko berriak hasi dira ikusten kalean. Eta ez da harritzekoa. Aurretan, inoiz baino kolore, konbinazio eta diseinu gehiagorekin iritsi baitira elastiko berriak erredakzio-etera eta ohiko salmenta puntuetara.

Haur, gazte zein helduentzat pentsatutako diseinuak eta koloreak dira, gustu guztiak asetzeko asmoarekin sortutakoak. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAren ohiko irudia zabaldu, eta gaur egungo mantxetaz gain, HITZAren lotutako irudi berriak sortu dituzte diseinu arduradunek.

Haurrentzako elastiko koloretuetan, esaterako, armiarma da protagonista, HITZAren paperez-



Kolore eta modelo askotariko elastikoak dira, lau diseinu konbinatuz. HITZA

### » SALNEURRIAK

- **Haurrentzako elastikoak.** 10 euro.
- **Helduentzako elastikoak.** 12 edo 15 euro, modeloaren arabera. Zenbait modelo daude aukeran, neskentzat zein mutilentzat.
- **HITZAren harpidedunek %25 merkeago dituzte elastiko guztiak.**

### Webgunean ikusgai

■ **www.hitza.info.** Webgunean ikusgai daude elastiko berrien hainbat modelo eta kolore.

### Oihalezko poltsa, opari

- **Elastikoarekin.** Elastiko bakoitzarekin oihalezko poltsa bana opari.
- **Poltsa, elastikorik gabe.** 3 euro.

ko edizioak eta webguneak duten lotura islatuz. Helduentzat, berriaz, beste hiru diseinu berri daude, eta horiek gainera kolore eta modelo ezberdinekin konbinatuz hainbat elastiko mota daude guztientzat aukeran.

### Harpidedunentzat, %25 merkeago

HITZAren harpidedunek, ohiko salneurria baino %25 merkeago erosi ahal izango dituzte elastiko berriak, harpidedun txartela erakutsita soilik.

HITZAren erredakzioetan eta ohiko lekuetan erosi daitezke elastikoak.

### Elastikoarekin, oihalezko poltsa opari

Elastikoa erosten duenak, gainera, HITZAren oihalezko poltsa jasoko du opari, elastiko bakoitzarekin batera.

Poltsa soilik erosi nahi duenak, elastikorik eraman gaber, hiru euro ordainduta ere eskuratu ahal izango du.

## A Agurrak



Urte askoan!

**Ixaskun Berasategi (Tolosa).**  
Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Familiak.



Urte askoan!

**Oihanek 15 urte eta Aritzek 13 urte.**  
Zorionak gurasoen partetik eta segi hain alaitsu.



**agurrak** urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

txokoa **h**



**4 sarrera pare** zozketatu ditugu!

**BRUESA GBC**  
Melilla Baloncesto

**OSTIRALA**

APIRILAK **11-20:30**

ILLUNBE

**Hauek dira irabazleak:**

- Haritz Larreta (Amezketza)
- Juan Bautista Aranzabe (Tolosa)
- Garbiñe Mujika (Villabona)
- Agustín Amiano (Altzo)

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Sarrerak HITZAren Tolosako bulegoan izango dituzue!